

MUTRIKU / Liburuaren egunaren inguruan hainbat ekintza izango dira

Liburuaren Eguna apirilaren 22an ospatuko bada ere, horren inguruan hainbat ekintza prestatzen dihardute, bai Udaleko Kultura Sailetik zein herrian martxan dagoen 'Irakurzaleak' taldearen eskutik. Kultura Sailak antolatutako ekimen nagusia haur eta gazteei zuzendutako 'bookcrossing' edo liburu trukaketa ekimena izango da.

Apirilaren 2tik 19ra bitartean, Udal Liburutegian haur eta gazteentzako euskarazko liburu kuttunenak jasotzen dihardute, ondoren liburu horiek herriko zenbait tokitan banatuko dituzte eta azkenik irakurzaletasuna indartzeko ekimen polit bat burutuko dute.

Ekimen hori apirilaren 22an, astelehenez izango da eta lehenik tailerra burutuko dute Udal Liburutegiko gela handian eta ondoren burutuko dute 'liburu askapen' hori. Tailerrean parte hartzeko epea apirilaren 19an bukatuko da eta plazak mugatuak dituzte. Izenak liburutegian bertan eman behar dira.

'Liburu hegalaria'

Bestalde 'Mutrikuko Irakurzaleak' kolektiboak antolaturik, 'Liburu Hegalaria' eguna antolatu dute apirilaren 21erako, baino gauzkak behar bezala antolatzeko, tailer bat antolatu dute hurrengo larunbaterako. Funtsean ekimena antzekoa da, etxearen liburu bat 'geldirik' eduki ordez, hegoak jarri nahi dizkiote, horretarako liburu bakoitzari kode bat jarriko zaio, baina guzti horiek larunbateko tailerrean lotuko dituzte.

Helduen ekimen hau apirilaren 21ean, igandez, goizeko 11:00etan burutuko da. Azkenik, apirilaren 27an, III. Irakurraldi saioa burutuko da Luardon. Bertan liburu zatitxo bat, narrazio laburren bat edo eta olerkiren bat irakurri nahi duenak, nahikoa du 628-573 287 telefonora deitu, nahia adierazi eta eguna iristean, arratsaldeko 19:00etan, Luardora biltzea..